

Egunkariaren xarma

In: Euskaldunon Egunkaria: *Euskaldunon Egunkaria*. Urtekaria 96, Euskaldunon Egunkaria, Andoain, 1996: 3.

Idatzizko lengoaiaren xarma iturbegi bertotik datorkio. Hasieran Jainkoaren hitza izan zen, eta idatzia zegoena, sakratua. Gutxi ziren irakurtzeko gai zirenak, mezua deszifratzeko apaiza behar zen izan. Apalagoa den mailan, Kristau Ikasbiderako dotrina txikian ikasi genuen irakurtzen, *Xabiartxo* eta *Martin Txilibiturekin* batera. Baina garai hartan eta gero ere, gehiena erderaz inprimatzen zenez, latinez, gaztelerez eta frantsesezko letra odolarekin sartzan zitzaien euskaldunari. Sufrikario honegatik euskara idatziaren bidea oso nekez eta eskas hasi zen zabaltzen euskal gizartean, eta aldizkariak, hilerokoak, astekariak, Elizaren bidetik etorri ziren. Ez dut hemen hauen zerrenda laburra errepikatuko, ez da lekua. Orain hemen esan nahi dudana bakarria Euskal Herriak ez duela ezagutu bere 6.000 urteko hizkuntza mintzatuan maiztasun gertuagoko euskal prentsarik, 1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen arte. Justu orain sei urte mukizu.

Ez bada honen beharraz euskaldunok konturatu ez ginelako. Ohartu ziren, idatzizko bozgoraz besteak beste Lizardi, Aitzol eta Leizaola, gutxienez, baina ditxosozko dirua zen falta, eta azkenean teknikaren poderioz diruaren inbentu zaharra gainditu zenean, publizitatea izan zen asmatu zena. Uste izan genuen bada kazetari egiten ari ginenok bide honetatik gure arazoa konponduko zela, baina laster ohartarazi gintuzten inbentu berri honetaz baliatzeko jendetza izan behar genuela Euskal Herrian, eta denok irakurtzeko gai, eta Jainkoak Euskal Herria bi aldiz eskaseko jendez eta jakintzaz osatua egin zuela! Hala harrapatu gintuzten publizitatearen modernitateak. Orain ausardiaz eta imajinazioz eta lana lanean jarriaz Ikastoletako ezpala zuen herri xeheari esker EGUNKARIA burutzea lortu zenean, Jaurlearitzako Kulturaren laguntzarekin, gure egoeran dauden herri guztietan gertatu den gisan.

Eta hala ere publizitate magikoa behar oraindik.

Orduan non dago, bada, guri eskatzen zaigun publizitatearen sekretua?

Egunkaria egiteko makina fina, azkarra eta garestia behar da eta profesional onak, eta kostu handiko produktu hau kale gorrian eta bere hizkuntzan saldu behar denean, esan berri dugun moduko erosle asko eta jakitun behar dugu publizitatea ordaintzen duten enpresek bezeroak izan ditzaten, eta ez duzu imajinazio asko behar, irakurle, hemen euskal irakurlearen ekuazioan sartzeko: erdarazko prentsa irakurle aberatsagoak kompetentzia zaila egiten digu.

Publizitate komertziala da hau, gure eskasiaren kupidarik ez duena. Bada beste bat, publizitate kulturala eta instituzionala, euskal administraziokoa gehienbat, eta honek behar luke izan gure salbazioaren erdia, gutxienez, baina ez gaitu gutxi baiño kontuan hartzen.

Hau ulertzen ez duena, eta ulertu nahi ez duena, ez da zuzen pentsatzen ari.

Euskaldunok herri euskaldun izaten jarraitzeko egunkari euskaldun bat behar dugu derrigorrez, Euskal Tebista eta Irrati euskaldunak behar-beharrezko ditugun bezalaxe.

Elkarlanean eta elkarren euskarri izanean bakarrik lor dezakegu euskalduntasuna posible egingo duen masa kritikoa. Eta ikastolak, euskal eskolak eta unibertsitateak eskatzen du hitz idatzi kultu hau, euskal mundu baten gaina *Egunkariaren* xarmarekin batera lortuko badugu.